

HELENA GOÑI

Singles

2021ko maiatzaren 11tik ekainaren 13ra

Zabaltzea: maiatzaren 11n, 10:00etan

Photomuseum

Argazki & Zinema Museoa

San Ignacio, 11 / P.K. 251 E-20800 – Zarautz

Tlf: 943 13 09 06

photomuseum@photomuseum.name

<http://www.photomuseum.es>

Helena Goñiren erakusketatik abiatuta
Singles hausnarketa txikiak, fikzioak eta beste nahaste-borrasteak

Jada geratzen ez direnetako kritikari kulturala da Maria Olano. Arratsaldeko zazpiak ziren eta itsas-pasealekuko haizearen eraginez, orrazkera nahastuta zuen. Hedabideetan zarata handia sortzen ari zen, eta dagoeneko hain gaztea ezen argazkilari baten erakusketara sartzera zihoan. Ez zen posible oraindik bere erakusketarik ikusi ez izana; mugikorrean denak beste dirdira bat du, eta berak, bere iritzia egiteko betebeharra zuen. Garai bateko makinaz jositako argazki-museoko sarrera pasa ondoren, adeitasunez hartu zuten mostradorean, eta bisitaren gehigarri zen bitarteko jarduera bat eskaintzen tematu ziren. Aparatu bat eman zioten— markatu bat euskaraz, bi gaztelaniaz edo hiru frantsesez entzuteko. Boltsatxoan aurikularrak dituzu—, esan zuen harreragileak. Mariak mesfidantzaz beterik entzun zuen, begiak harreragilearen ezpainak estaltzen zituen maskaran finkatuta. Honek aldiz, Mariaren orrazkera bitxiari begiratzen zion, jarraibideak ematen jarraitzen zuen bitartean. Mariak ez zion apenas ulertzen, baina bazekien nola funtzionatzen duten berriketa hauek.

Ikusle maitea,

Aitortu behar dizut gibel-asmoz hitz egingo dudala, erdizka esango dudala, esaten dizudan hau esapide aipagarri bat besterik ez dela izango, zure konfiantzaz abusatuz, baita ere, gardentasunean jarritako konfiantzaz, hain juxtu argituko ez dudan beloaren gardentasuna. Erdiaren alde egingo dut, madarikatuko dut, erdia esango dut, edo akaso saiatuko naiz esentziak eta erremedioak ez ematen, saiatuko naiz audio-gida hau ez dadila bihurtu zure esperientzia baretzen lagunduko duen baliabidea.

Hala ere, ez kezkatu, ez zaude bakarrik. Singleak albumetik hautatutako abesti baten aukeraketa diren bezala, zu ere guztiaren zati bat zera. Gogoratu izenburuaren “k” pluralak zaintzen zaituela. Familiako albumeko argazki bat baino gehiago zarela, oinordetzako lerrotik moztutako puntu bat baino gehiago zarela zu. Plurala zara zu, bektore pila bat erlazio-gailutzar batean. Behin eta berriz, zeure buruari kontatzeko gai zara, eta eusten zaituzten lerroak berriz artikulatzeko eta tenkatzeko gai zara. Beraz, beste ukitu batekin aurkezteko gai zara, erakusketa hau aurkezten den bezala. Nahi baduzu zeure subjektibotasuna zeure buruaren aurka jotzeraino birnahastu dezakezu, eta transferentziaren formula ordezkatu. Hortaz, ulermenean daramazun kantatxoak eragiten duen nahaste-borrastea aska ezazu, atera errotik denbora, utzi zeure buruari entzuteari eta beste modu batera berrirakur zaitez. Jokoan sar zaitez, saltatu beste ertzera, ebakiaren

zauriaren gainetik hegan egin eta ez izan beldurrik, nolana ere gertatuko balitz ere "k" laguntzera aterako da.

Badakit, zuk bezala, ez dela erraza, amildegi bat dagoela baten eta bestearen artean, gauza eta irudiaren artean, zu eta Bestearen artean; badakigu esperientziak prezioa duela, ezin baita aurreikusi, baina gero miazkatuko dituzu itxaropenak. Orain, ikusle maitea, hemen dago; ez itxaron gehiago, ez izan beldurrik. Ez begiratu urrutitik, zorabioari jarraitu eta salto egin. Ongi etorri *Singles*-era, Helena Goñiren erakusketara!

Berak zer egin behar zuen esatea ez zitzaion batere gustatzen Maria Olanori. Erretolika hura entzuten zegoen, sarrerako gelan zegoen barra birakariarekin borrokan ari zen bitartean. Nahaspilatu egin ziren poltsaren uhala eta entzungailuaren kablea, eta ezin zuen bere ohar-bloka atera. Zuzenean, sarrerako eskaileretan eseri zen, eta, nahaspila askatzea lortu zuenean, luma hartu, sakon arnastu eta zera esan zuen:

Esaten denez, ez omen du ezertarako balio landari ateak jartzeak, eta erakusketa honetan, sartu ahala, muturrekoa jasotzen dugu. Ez da altzozakurrik behar, hemen audio-gidaren ahotsak zaunka egiten digu eta une batez larriagotu egiten da, nahita autolaguntzako liburuaren tonua erabiltzen da, ikuslea bere "barnetik" bereizteko eta esperientzia pizteko ahaleginean. Ahots txiki horrek Frankensteinen metafora errazera garamatza eta, horrela, artxiboko lan orok jasan behar duen operazio-mahaiarekin parekatzen ditu *Dj* batek bere nahasketa-mahaiaren burutzen dituen postprodukzioak. Erakusketak muntaia bat aurkezten du: horien abiapuntua bere ekoizpen-testuinguruetatik ateratako argazkiak dira; badirudi sailak sortzen dituela, irakurketa berriak artikulatzeko, argia ikusi zuten egoeretatik edo ekoiztu ziren proiektuetatik haratago. Aparatu horren laguntzak ez du zentzurik. *Taser* baten modura, azkenean belarriak gaiztotzen ditu. Badirudi artistak artxibo bakarra sortu duela bere argazki guztiekin, eta aukeraketa lanean harremanean jartzen ditu bere lana osatzen dituen alderdi guztiak. Erakusketa formatu honek, ezer berria ez bada ere, konposiziotik musikarako trantsizioa ahalbidetzen du, eta eisensteiniar esaldiaren eredu jarraitzen laguntzen digu: "deskribapena planoan dago; irudia muntaketan dago"; gure kontzientziaren garapena jarrai dezakegun bezala, "berezko fenomenoek isladatik, fenomenoek arteko erlazioek isladara". Ikusleari "laguntzen" dion aparatu horretatik ateratzen den deskarga ausart eta tematuak hipertestuaren ideia azpimarratzen du, eta horrekin batera, konparazioz, erakusketaren malgutasunak ahalbidetzen duen emantzipazioa. Hala ere, ahotsa argazki-multzotik ihes egiten duen gehiegizko bitartekotzan erortzen da. Idazketa-tailerra balitz bezala, hipermodernitate-lanean jartzen du arreta, iraganaren berreraikuntza ahalbidetzen baitu indibidualtasunetik. Azken batean, audiogidak idazketa esperimentatzearen plazerrera bultzatzen du, hori erraz gertatuko balitz bezala, areto batetik paseoan

gabiltzala. Ziurtzat ematen du erakusketa hau une koiuntural horietatik sortzen dela, artista batek bere ibilbidea berrikusteko bidean geldialdia egiten duenean, eta, era berean, ahotsak ikusleari proposatzen dio inguratzen duenaz birjabetzea, eta gozamenerako gonbitea luzatzen dio zentzua erakusketako ibilbidearekin batera egokitzeko. Azken batean, audio-gidak idazketaren gozamenera bultzatzen du, erakusketa-areto batean paseoan, hori horrela erraz gertatuko balitz bezala. Bitartekaritza-mota horrek, oso garaikidea, aktiboa eta erakargarria izan arren, eta, nahiz eta helburua ekintza bera zabaltzea eta transmititzea izan, badirudi bere funtzio didaktikoak urratzen dituela. Egia da bere hastapenean ohartarazten duela erdizka geldituko dela ikuslearen ahotsari lekua uzteko, baina gozamenaz haratago ezer ulertzeko ez balego bezala, ekintza hori gorputzean eta bere esperientzian bakarrik dagokio.

Maria Olanori gustatzen zaio esatea, bere ustez, zer pentsatu behar den. Gauzak modu batera izan behar dira. Gustatzen zaio bizitzaz zerbait erreala ulertu ahal izatea, zergatia, arrunt aldaezina. Ordena eta xehetasunak arakatzea gustatzen zaio, formatuen, paper moten eta markoen arteko loturak ikustea, zein garrantzitsuak diren markoak Maria Olanorentzat! Berak beti esaten du ez dagoela ezer testuingurutik kanpo, testuingurua dela garrantzitsuena, testurik gabe ez dagoela ezer, gramatikak, egiturak, eusten digula zibilizazio gisa. Eta horregatik, egun hartan, erakusketa bat bisitatzen zuen bakoitzean egiten zuen bezala, haren edukia ikusten hasi aurretik, aretoko orria bilatu zuen, arrazoia, zergatia bilatuz.

Helena Goñiren pertzepzioa bi norabideetan egiten den eraikuntza da, begiradak etengabe gurutzatzen diren objektuaren eta subjektuaren artean dagoen zubia, alegia. Bere jakintzaren berezitasunetako bat, hain zuzen ere, bere teknikatik (techné) ahalmen poetikoa atera eta hartara alethia (egia) agertarazten du. Hau da, bertan ezkatatuta zegoenaren berri ematen digu presentziatik abiatuta, eta, gainera, keinu horretan, episteme (ezagutza) bat ateratzen du, inguruaren ezagutza kritikoa, begirada "janzteko" duen trebetasunatik abiatuta. Horrek, ezagutzera ematen dizkigu bere generazioko itxaropenak eta porrotak, desio eta etsipenak uztartzen diren beste pertsonen eguneroko pertsonala. (...)

Ez dugu lehen paragrafoa amaitu beharrik areto-orriak erakusketaren aurrean bakarrik uzten zaituela jakiteko. Beraz, jauzi egin eta Helena Goñik bere eraikuntza pertzeptibotik ateratzen duen ustezko ezagutza kritikoa zein den ikusi beharko da...

Maria Olano eskaileretatik altxatu zen eta hauek izan ziren egun hartan idatzi zituen azken lerroak. Oro har, Mariaren koadernoko notak ohar promiskuoak izaten ziren, halabeharrez ateratzen ziren bertatik, eta, luma okasiorako zorrotzu bazuen ere, bere gogoetek argazkiak bere oroitzapenekin nahasten hasi ziren, eta une batez lanari utzi zion.

*

Helena maitea,

Baso batetik idazten dizut, mugikorretik, adarretatik zintzilik dauden argiztalen artean noala. Nire amaren txakurrak paseatzen ari naiz eta Floridako baso baten oroitzapena etorri zait, nahiz eta ez dakit zergatik lotzen dudan zure erakusketarekin. Oroitzapena nire nerabezarokoa da; ni etxean hartu ninduen familiako semearekin nengoen, hilabete eman nuen han ingelesa ikasteko asmoz. Eta zer gertatzen den ikustera sartzen den segada bitxi horietako batean—orain Parisko katakonbetara jaisteko zorian egongo zaren zu bezala—, kaxez betetako furgoneta baten atzeko aldean sartu, merkantzia hartu eta basoan amaitu nuen semearen lagunekin. Ez naiz haren izenez oroitzen, baina ezagutu nuen lehen egunean, besoetan zeraman zinta amerikarrez ahoa itxi zion *alligator* batekin egin zidan harrera, ongiatorri oparia bezalakoa zen. Nahi gabe Florida sakonean nengoen. Kontua da marihuana erretzen hasi ginela pipak jaten dituenak bezala. Orduak pasa ziren eta basotik irten behar genuen, jaiki egin ginen eta more osoa igo zitzaidan. Gogoratzen dut minutu batzuetan zuri txeltzez bakarrik ikus nezakeela, gris-gamarik gabe. Nahaste beltzak eta distira zuriak. Gogoan dut, duela egun batzuk, erakusketarako argazkien aukeraketan pentsatzen ari ginela, asko pentsatu gabe botatako hitzetan elkartu genituela. Fetitxistak, bakezkoak, zuri-beltzekoak, collagea... eta gris-gamak gogoan, Nietzscheren aipu batez oroitu naiz, alegia, gizateriak bere gauzarik hoberenetarako bertan dagoen gauzarik txarrena behar duela edo halako zerbait esaten zuena. Ez dakit lotsagatik izan ote zen, baina, azkenean, trap deritzogun aukeraketa kanpoan geratu zen... Baso honetan itsasoa antzematen zen zeruertzean.

*

Helena maitea,

Orain ospitaletik idazten dizut. Badakizu txandak egiten ari garela txakurrak atera eta nire aita zaintzeko. Badakizu nire aita biologikoa duela hilabete batzuk hil zela, eta duela gutxi Jabierrek, nire amaren senarrak, istripua izan zuela. Jabier nire aita jarduneko izan da zortzi urte nituenetik, eta horrek guztiak familia osoa apur bat aztoratu gaitu. Nire aita Jesusen argazkiak aztertzen aritu naiz azkenaldian. Gorputzez asko hitz egin dugu eta erretratuari ihes egin diogu erakusketa prestatzen ari ginenean. Eskatzen didazun gogoeta-ariketa eta azken aldian bizi izan ditudan esperientziak nahastea ezin izan dut saihestu. Batzuetan, eguneroko idazketa sakonera duten egunekin bat egiten da, nahiz eta azalean jokatu. Kurtsore bat taupadaka pantaila zurian, larruazaleko zaurien sendaketak, argiak lente

batean eragin eta une hori hilezkor bihurtzen da negatiboa erretzean. Egun hauetan ere, Skype bidez elkartu gara eta argazkiak pasatu ditugu, erakusketaren plano osatu dugu eta zuk erakusketa-proposamenean nahasten diren urte eta hiri ezberdinez hitz egin duzu... Argi ikusten nuen nire osagarri-ariketak entzutearekin eta solaskide izatearekin zerikusia zuela, hirugarren bektore bat, hegaldia zabaltzeko eta ez sakonetik irakurtzeko, ezta lurrean dagoen materialismotik ere, baizik eta txori-begietatik, poesiatik. Gorputz fotografikoaren ideian pentsatu dut, eta plastikoz bildutako gorputz baten argazki horretan, eta gogoan dut hilabete batzuk etxean pasa zenituen garaia; zure praktikaz hitz egin genuen. Zure piezen irakurketa partziala balitz, klixe bihurtzeko arriskua zutela, belaunaldi baten erreportaje moduan: kontzertuen argazkiak, moda-argazkia edo berdin itotzen zaituzten beste izendapen batzuk. Zuk jakintza tekniko hutsa baino zerbait gehiago proposatzen duzu. Gogoan dut orain aipu bat beharbada Mallarmerena. Harek literatura problematizatzen hasten denean, literatura badagoela zihoen. Oso barne-barneko problematizazioa dago zure praktikan, desira bezala, ez dagoena izateko irrika bat bezala, proiektu espezifikoetan konpontzen dituzun arazoak baino lehenagokoa eta zure gorputz fotografiko osoa zeharkatzen duena. Argazki-dantza egiten hasi ginenean, Albinoniren *Adagio sol txikian* entzuten zeunden, nik ere Berlingo Naturkunde museoa egin nuen bideo baterako erabili nuena. Bideoan animalia disekatuen argazki- sekuentzia ikusten da, eta une horretan, zure argazkiak ikusten genituen bitartean, hondoko abestia genuen. Egun hauetan lagun izan dudana sentsazioa da; badakit oso subjektiboa dela, intuizioa ez dakit transmititzen jakingo dizudan, buelta gehiago eman beharko nizkioke, baina denborak larritzen gaitu. Beno, dolu-prozesuekin eta lan fotografikoarekin zerikusia du, ez alderdi fantasmagorikoa, bai existentziarekin eta esperientziaren bidez ematen den moduarekin. Ez ehizaren garaian, baizik eta gorpuekin egindako lanean, gainerakoen erotikan, argazkiak berrikusteko lanean eta oraingo irakurketaren txertaketan; izan ere, horrek zerikusia du egiten denak egiten dena aldatzen duelako ideiarekin, eta hor proiektuetatik ihes egiten duen zerbait dago. Eta bete-betean sartzen da prozesuetan, eta hori azpimarratzen du, bertan ez egon arren. Denak zeharkatzen dituen testuan bezala, idazten uzten ez dena, baina hala ere, horrek du garrantzia.

*

Maria Olanori ez zaio axola kaixo ez esatea, ez aurkeztea, ez zaio axola pixka batean ez esertzea lasai hitz egiteko; nahiagoko luke bakean utziko balute, eta, hala ere, egun batzuk zeramatzan urduri, etengabeko aztarnarekin, aurreko astean ikusi zuen erakusketak utzi zion pentsamenduaren arrastoa, oraindik ez zen itzali. Tonua ulertu zuela uste izan zuen, eta beste lerro batzuk idatzi zituen bere blogean:

Helena Goñiren erakusketan marrazten diren jarduera-ildoek proiektu handiek izan ohi dituzten bestelako muntaia eskatzen du. Erakusketak bektore izatearen garrantzia du, eta agian bere ibilbidearen irakurketaren inflexio-puntua da. Beraz, diagnostikoa izatea garrantzitsua da. Erakusketa-erakuntza bestelakoa izan zitekeen, adibidez, aretoa edo baldintzak

bestelakoak izan balira. Beraz, adierazpen bat da. Bertan, muntaia, ekintza bera, aurkeztutako piezak baino handiagoa da. Eta horrela aurkezten digu Helena Goñik zorioneko audiogidak aipatzen zuen "k" paradoxikoa, etengabeko lana izanik; betiereko usain faltsuei ihes eginez, orainaldian apustu egiten duen maitasunak bezala.

Iván Gómez

2021eko apirilaren 20an.